

## **“ENPRESA-DINAMISMOA, ABERASTASUNAREN ETA ENPLEGUAREN SORRERA: EAEko AZTERKETA” AZTERLANA KONTRATATZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **1- AZTERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ESPARRUA**

Egungo krisiaren aurreko hazkunde ekonomikoko aldiari, euskal enpresek aberastasuna (BPGd, BEGd, negozio-zifra...) eta enplegua sortzen eta, hedaturaz, gizartea garatzen lagundu dute.

Egungo krisiaren abiarazlea finantzarioa izan da, egiazko ekonomian eragin du eta ekonomia jarduera, enpresak eta enplegua galarazi ditu.

Hala, zenbait urtez BPGd-ren egiazko aldakuntza tasak positiboak eta %3ren gainekoak izan ondoren, 2009an euskal ekonomia atzeraldian sartu zen, eta etapa hori egun arte luzatu da. EUSTATen datuen arabera, 2013ko irailean, 2012an produkzioa urtetik urterako zenbaki errealetan, %1,6 jaitsi zen.

Testuinguru horretan, hamabost urtez enplegua sortu ondoren, 2009an EAEko lan merkatuaren okupazio zifrek beheranzko etapari ekin zioten, eta joera berari jarraitu diote 2012an. Euskal ekonomiako enplegu galera horrek iraun egin du, eta areagotu ere egin da; horrek, langabeziaren hazkunde handia ekarri du, bai pertsona kopuruari bai biztanleria aktiboaren gaineko portzentajeari dagokienez.

Izan ere, urtearen amaierako langabezia-tasa (% 12,8, EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren —BJA— arabera) handiena izan da 2000tik, eta langabeen kopurua (130.000, inkesta horren arabera, eta 170.000, LANBIDEko erregistroen arabera) are handiagoa izan zitekeen, lan-merkatua neurri handian utzi ezean. Horren ondorioz, jarduera-tasak murriztu dira batez ere gazteen artean, baina 45 urtetik gorako gizonen artean ere bai. Zentzu horretan, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten pertsonen kopuruak % 2,5 egin du behera batez beste, baina % 3,5eraino jaitsi da azken hiruhilekoan, eta, aldi berean, EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen okupazioak, era berean, ekitaldian zehar beheranzko profila erakutsi du.

Bestalde, BJAREN langabezia-tasa orokorra %12,8raino iritsi da urte amaieran eta lau hiruhilekoetan batez beste %12,1 izan da, 2000tik gertatzen ez ziren datuak. 2013ko bigarren hiruhilekoan, tasa %14,5eraino iritsi da, 2013ko lehen hiruhilekoan baino ehuneko 0,7 puntu gehiago.

EUSTATen Ekonomia Jardueren Direktorioaren (JED) gaineko 2012ko datuen arabera, bestalde, guztira 184.471 establezimendu zenbatu dira, EAEko 165.517 enpresari dagozkienak (lehen sektorekoak alde batera utzita). Horren ondorioz, 2008 eta 2012 bitartean, enpresen kopuruak (lantegiak, dendak, bulegoak...) behera egin du EAEn % 10,2 (18.773 enpresa gutxiago), eta, enpleguaren jaitsiera % 7,4koa denez (-69.358), enpresa bakoitzeko batez besteko tamaina 5,1etik 5,3ra igaro da.

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,2) “pertsona fisiko” motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,9 baino ez du biltzen. Horrenbestez, “pertsona juridikoen” estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,8koa da eta enpresa horiek enpleguaren % 84,1 biltzen dute.

Pertsona fisikoak aintzat hartzen ez badira, enpleguaren bi herenak baino apur bat gehiago (%67,2) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen dira; Sozietate Kooperatiboak enpresen %2 dira, eta enpleguaren %6,3 biltzen dute.

Arestiko guztiaren ondorioz, eta “Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika”k agerian utzi duenez, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek batera likidatutako guztizko sarrerak murrizketak (%-2,5 2010 eta 2011 artean, adibidez) edo igoera txikiak (%0,1 2012an aurreko urtearen aldean) izan dituzten azken urteetan.

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarrerren gehiengoa dira, eta zenbateko osoaren % 90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dagokionez, 2012rako behin-behineko datuek % 0,6ko jaitsiera erakusten dute, aurreko urtean % 1,9 murriztu ondoren.

	SARRERAK	EUSKO JAURLARITZAKO SAILETAN KITATUTAKO GASTUA						
		Aldak. % Zerga itunduengatik o bilketa	Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza		Osasuna eta Kontsumoa		Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	
			Mila euro	BPGd gaineko %	Mila euro	BPGd gaineko %	Mila euro	BPGd gaineko %
2010	+8,4	2.783.639	4,3	3.542.338	5,4	436.154	0,7	
2011	-1,9	2.715.639	4,1	3.415.770	5,2	306.425	0,5	
2012	-0,6	2.625.112	4,1	3.365.367	5,2	327.579	0,5	

*\*: Aurrekontua  
Iturria: EAEko Kontu Orokorretatik geuk egina, eta azken urterako aurrekontuak*

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak zenbait Saili –besteak beste, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila edo Osasun eta Kontsumo Saila- bideratutako aurrekontu-sailak murriztu egin dira, bai zenbaki absolutuetan bai BPGd-ren gaineko portzentajearen.

Amaitzeko, esan behar dugu 2013ko lehen bi hiruhilekoetan, EUSTATen arabera, BPGd-ren aldakuntza tasak negatiboak izan direla berriz ere (%-1,9 eta %-1,5, hurrenez hurren); hala ere, bigarren hiruhilekoko zifra lehenengokoa baino lau hamarren hobeia izan da eta lehengoratzeko prozesuak aurrera baina oso motel jarraituko duela espero da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2013an enpleguak konpondu gabeko arazoa izaten jarraituko du, eta ez da espero 2014ko azken hiruhilekora arte egonkortzea.

Arestian azaldutakoa aintzat hartuta, EGABek, gizartea jakinaren ganean jartzeko, azterlan bat egin nahi du, euskal enpresa sareak gure erkidegoan aberastasuna eta enplegua sortzen eta gizartea garatzen egindako ekarpena aztertzeko. Era berean, krisi ekonomikoak arestiko aldagaietan izandako eragina aztertuko du, ondoren, euskal enpresek euren jardura burutzen duten giroa eta ingurunea (“ekosistema”) aztertzeko, haiek aztertuta, haiek garatzeko dauden oztopoak eta palankak identifikatzeko.

Halaber, azterlanak, ikuspegi erkatutik, beste eskualde batzuetan aberastasuna, enplegua eta ongizatea areagotu ahal izateko enpresen dinamismoa eta garapena sortzen laguntzen ari diren jardunbide onak identifikatuko ditu.

## 2- AZTERLANAREN HELBURUA

Zehazki, honako helburuak izango lituzke:

- Euskal enpresek EAEko aberastasuna eta enplegua sortzen eta gizartea garatzen egindako ekarpena aztertzea; baita krisi ekonomikoak aldagai horietan izandako eragina aztertzea ere.
- Euskal enpresek euren jardura burutzen duten giroa eta ingurunea (“ekosistema”) aztertzea.
- EAEn enpresen garapen handiagoa galarazten duten oztopoak identifikatzea.

- Europako beste eskualde batzuekin erkatuta, EAEko enpresen dinamismoa eta garapena bultzatuz ditzaketen, eta hala, aberastasuna, enplegua eta ongizatea areagotzen lagun dezaketen eragileak eta politikak ezagutzea.

### **3- AZTERLANAREN EDUKIA ETA FASEAK**

Lana bost txosten bereizitan egituratuko da. Txosten horiek azterlaneko bost kapituluekin bat etorriko dira:

❖ **1. kapitulua. Azterlanaren sarrera eta ikuspegi orokorra.**

Hura emateko epea bost egunekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Haren barruan lanaren helburuak, metodologia eta bibliografia, funtsezko kontzeptuak eta aurkibide xehea sartuko dira.

❖ **2. kapitulua. Euskal enpresa eta EAEko aberastasuna, enplegua eta gizarte parapena sortzea: Ikuspegi erkatua.**

Bi helburu lortu nahi dira. Alde batetik, euskal enpresek EAEko aberastasuna eta enplegua sortzen eta gizartea garatzen egindako ekarpena aztertzea; baita krisi ekonomikoak aldagai horietan izandako eragina aztertzea ere. Eta bestetik, argazki hori Europako bi eskualdetakoarekin erkatzea. Eskualde horiek azterketa kasu gisa hautatuko dira, lantzen ari garen lanari lotutako jardunbide onak izateagatik. Eskualdeetako bat Alemaniako estatu federatu bat izango da eta bestea Italiako eskualde bat izan liteke.

Ahal den heinean, analisi estatistikoa enpresa publikoari, sozietate kooperatiboei eta lan-sozietate anonimoei hedatuko zaie.

Horren ondorioz, argazki ahalik eta onena islatzeko ahalegina egingo da, jakinda analisi berezia ez dela bideragarria jarraian zehaztuko diren adierazle guzti-guztientzat.

Tresna metodologikoak estatistika iturri ofizialak eta erakunde ofizialen azterlanak edo erakunde ofizial horientzat egindakoak izango dira.

Hura emateko epea hil eta erdikoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Kapitulua atal handi bitan bereiziko da, eta amaieran beste bat egongo da ondorioetarako.

#### **2.1 Enpresen demografia eta gizarte ekarpena krisi aurreko etapan**

Helburua euskal enpresek krisi aurreko etapan aberastasuna eta enplegua sortzen eta gizartea garatzen egindako ekarpenaren bilakaera (krisi aurreko hamarkadan) aztertzea da.

Ahal de heinean, EAEren argazkia aztertutako europar eskualde bienarekin erkatuko da.

Besteak beste, honako alderdiak aztertuko dira:

- ✓ Enpresen demografia
  - Jabetza motaren arabera –pribatua edo publikoa-
  - Izaera juridikoaren arabera
  - Enplegu mailaren arabera

- Sektoreka
  - Beste batzuk
  - ✓ Enpresen aberastasuna sortzeko gaitasuna. Analisia sektoreen eta azpi-sektoreen arabera egingo da, egun argitaratutako estatistika informazioa kontuan izanda (aldeak daude industriaren eta zerbitzuen artean). Eta zabaltzea komeni denetz pentsatuko da. Hedatzea komenigarria dela uste bada eta prest dagoela egiaztatuz gero, eskaintzaren enpresa esleipendunak ad hoc eskaerak egingo dizkio estatistika organoei.
    - BEGd edo BPGd
    - Negozio-zifra garbia
    - Ustiapenaren emaitzak
  - ✓ Enpresek enpleguari egindako ekarpena
  - ✓ Enpresek Ongizatearen Estatuari egindako ekarpena
    - Zergak: Sozietateen gaineko Zerga, PFEZ, BEZ
    - Pentsioak: Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza kuotak
    - Langabezia:
      - Gertakizun arruntetarako ekarpena
      - Gizarte Segurantzaren jasangarritasun ratioa: Zenbat enpresak kotizatu behar dute?
  - ✓ Enpresek Ongizatearen Estatuari egindako ekarpena neurtu ahal izateko ratioak
- Euskal enpresek EAEko aberastasuna eta enplegua sortzen eta gizartea garatzen egindako ekarpena testuinguruan jartzea bilatzen da, egokiak diren adierazlean definituz eta aztertuz.

## **2.2. Krisiak enpresa sarean eta, horren ondorioz, aberastasunaren eta enpleguaren sorreran izan duen eragina**

Helburua krisi ekonomikoak enpresa sarean eta, horren ondorioz, aberastasunaren eta enpleguaren sorreran izandako eragina aztertzea da.

Besteak beste, honako alderdiak aztertuko dira:

- ✓ Suntsitutako aberastasuna, BPGd/BEGd... datuetan

Arestiko kasuan bezala, analisia sektoreen eta azpi-sektoreen arabera egingo da; egun argitaratuta dagoen estatistika informazioa aintzat hartuta (gogoratu behar dugu dagoen

informazioan aldeak daudela industriaren eta zerbitzuen artean). Eta zabaltzea komeni denetz pentsatuko da. Hedatzea komenigarria dela uste bada eta prest dagoela egiaztatuz gero, eskaintzaren enpresa esleipendunak ad hoc eskaerak egingo dizkio estatistika organoiei.

- ✓ Galdutako enpresak izaera juridikoaren eta jarduera sektoreen arabera.
- ✓ Enpresen altak eta bajak eta, hedaduraz, handik ateratako saldoa, izaera juridikoaren, jarduera sektorearen eta enplegu mailaren arabera.
- ✓ Hari lotuta galdutako enplegua
- ✓ Beste batzuk.

### **2.3 Ondorioak, oharbideak eta gomendioak**

Helburua kapituluaren ondorio nagusiak, oharbideak eta balizko gomendioak aurreratzea da.

#### ❖ **3. kapitulua. EAEn dagoen enpresa giroa**

Helburua euskal enpresek euren jarduera burutzen duten giroa eta ingurunea (“ekosistema”) aztertzea da, azterketa horren bidez, haien garapenerako dauden oztopoak eta palankak identifikatzeko.

Ahal den heinean, analisi estatistikoa enpresa publikoari, sozietate kooperatiboei eta lan-sozietate anonimoei hedatuko zaie.

Tresna metodologikoak estatistika ofizialak eta erakunde ofizialen azterlanak edo erakunde ofizial horientzat egindakoak izango dira.

Hura emateko epea hiru hilekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Kapitulua atal handi bitan bereiziko da, eta amaieran beste bat egongo da ondorioetarako.

#### **3.1. EAEn dagoen enpresen gizarte giroa**

Besteak beste, honako alderdiak aztertuko dira:

- Giza kapitala eta enpresa

Helburua daukagun giza kapitala euskal enpresek euren jarduera garatu ahal izateko egokia eta nahikoa den ezagutzea da.

- Enpresen gizarte giroa

Helburua gizarteak “enpresa”z duen ikuspegia ezagutzea da. Alegia, gizartean zer sumatzen den. Argitaratutako azterlan ofizialen bidez, besteak beste, honako alderdiak aztertu behar lirateke:

- Konfiantza vs. mesfidantza

- Biztanleen itxaropenak
  - Kultura ekintzailea
  - Gizarteak arriskuaren aurrean dituen tolerantzia eta higuina
  - Enpresarekiko tolerantzia eta higuina
- Enpresa kultura

Helburua EAEn enpresaburuak dituen ezaugarriak aztertzea litzateke

- Ezaugarri pertsonalak eta profesionalak
- Prestakuntza eta esperientzia
- Lidergorako eta motibaziorako gaitasuna
- Arrakasta eta porrotarekiko tolerantzia
- Enpresaburu berriak

### **3.2. EAEko enpresen garapen eta dinamismorako oztopoak eta palankak**

Helburua enpresen garapen eta dinamismorako oztopo eta palanka diharduten elementuak aztertzea da, horretarako sailkapen zehatz bat ezarriz:

- Gure gizartean dagoen arau eta balio esparrua.
- Zientzia eta teknologia alderdiak, alderdi horiei lotutako lankidetzak kultura barne
- Gizarte alderdiak
- Finantza alderdiak
- Enpresen kudeaketari eta antolamenduari buruzko alderdiak
- Energia alderdiak: zehazki, energiaren kostua.
- Lehengaien kostuak
- Beste batzuk.

### **3.3. Ondorioak, oharbideak eta gomendioak**

Helburua kapituluaren ondorio nagusiak, oharbideak eta balizko gomendioak aurreratzea da.

#### ❖ 4. kapitulua. EAEko enpresak garatzen eta sortzen laguntzeko inguruneen eta politiken analisi erkatua

Honakoak aztertuko dira, EAE eta aztertutako eskualde biak erkatuz:

- Alde batetik, enpresek euren jarduera burutzen duten enpresen gizarte giroko esparruak (giza kapitala eta enpresa, enpresen gizarte giroa eta enpresa kultura) eta enpresen garapenari eta sorrerari dagokienez dauden oztopoak eta palankak (arau eta balio esparruak, zientzia eta teknologia alderdiak, gizarte alderdiak, finantza alderdiak, kudeaketa eta antolamendua, bestek beste).
- ✓ Bestetik, enpresak garatzen eta sortzen laguntzeko politikak (hezkuntza eta sentsibilizaziokoak, sustapenekoak, finantza baliabideak eskuratzekoak, administrazioa sinpletzekoak, zergakoak...).

Erabiliko den metodologiari dagokionez, gaiari buruz dagoen bibliografia aztertuko da. Alegia, erakunde ofizialen azterlanak edo erakunde ofizialentzat egindakoak.

Aztertu eta erkatzeko kasuak lana egiten duen kanpoko taldeak proposatuko ditu, baina Euskadiko EGABek onartu beharko du, eta hark ere proposamen zehatzak egin ahalko ditu. Printzipioz, aipatu denez, eskualdeetako bat Alemaniako estatu federatu bat izango da eta bestea Italiako eskualde bat izan liteke.

“Erkaketa” aipatzen denean, ulertzen da, lurralde bakoitzean dauden neurriak azaldu ez ezik, neurriak (gutxienez, garrantzitsuenak) aztertutako hiru geografia esparruetan dauden ala haietako baten batean baino ez dauden erkatzen duten taulak ere sartu behar direla.

Hura emateko epea lau hil eta erdikoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Kapitulua ondorioetarako atal bat izango du amaieran.

#### ❖ 5. kapitulua. Laburpena eta oharbideak eta gomendioak

Zati bitan bananduko da:

- ✓ Laburpena
- ✓ Enpresak dinamizatzeko proposamenak eta gomendioak

Hura emateko epea sei hilekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Azterlanaren aurkibidea zabalik dago aholkularitza taldeekin eztabaidatzeko eta, Euskadiko EGABek onartu ondoren, beste batzuk sar litezke, informazioa aztertu ondoren sortuko balira, edo aurkibide honetan jasotako baten batekin ordezkari litezke, garatzen den heinean eztabaidatu ahala, baita azkenean bildutako informazioaren arabera ere.

#### **4- METODOLOGIA KONTUAK**

**Lehenik**, Batzordearen osoko bilkurak Ekonomia Garapeneko Batzordeari esleitu dio Azterlana. Hura lanaren planteamendua, jarraipena eta kontrola (edukia, metodologia, aurkibidea, emate partzialak eta bilerak,

bidean sortutako balizko birbideratzeak...) erabakitzeko bilduko da. Zentzu horretan, lanaren esleipendunak Lan Batzorde horri emandako zati bakoitzaren aurkezpen bat egiteko konpromisoa hartuko du, azken horrek egokia iritziz gero.

**Bigarrenik**, bilatzen den helburua lana zerikusia izan dezaketen eragile guztientzat erabilgarria izatea da eta, beraz, ekimenak ikuspegi praktikoa eta sintetikoa du, ez teoriazatzailea. Azken batean, amaierako txostena argia eta laburra izatea da, zerikusia duten eragileentzat orientabidea eta gida izan dadin.

**Hirugarrenik**, jendeari zabaldutako tribuna bat egin nahi da. Haren kudeaketan, lanaren esleipendunak lagunduko du.

#### **5- JARRAIPENA ETA KONTROLA**

Lanen jarraipena eta kontrola Euskadiko EGABek izendatutako azterlanaren arduradunarekin egindako bileren bidez egingo da zuzenean, hark erabakitako tokian eta egunean, baina gutxienez hilero lana egiteko ezarritako epean, kontratua esleitzen den egunetik aurrera.

Erakunde esleipendunek azterlanaren arduradunaren ikuskapen lana erraztu beharko dute, eskatzen zaizkien agiri guztiak emanez eta hari azterlana egin bitartean sortutako gertakari guztien berri emanez.

Aipatu den bezala, lanaren esleipendunek konpromisoa hartuko dute azterlanaren kapitulu bakoitza Euskadiko EGABen azterlanaren ardura duen Lan Batzordeari aurkezteko, hark egokia iritziz gero.

#### **6- ZERBITZUA EMATEKO FORMATUA**

Dokumentuak formatu digitalean entregatuko dira, eta inprimatutako dokumentuetan Word formatua erabiliko da.



## I. ERANSKINA

### EKONOMIA-PROPOSAMENAREN EREDUA

\_\_\_\_\_ jaun/andereak, jakinarazpenetarako helbidea \_\_\_\_\_ n duenak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakia duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, bere izenean edo \_\_\_\_\_ ordezkatuz, \_\_\_\_\_ esleitzeko eskatzen diren baldintzak eta betekizunak ezagututa, bere izenean edo enpresa hura ordezkatuz, konpromisoa hartu du lan honi dagozkion lanak egiteko, esleipendun gertatuko balitz, indarreko araudiari eta dagozkion administrazio-klausulen eta klausula teknikoen agiriei zorrozki lotuz, guztizko zenbatekoa \_\_\_\_\_ (letraz) \_\_\_\_\_ euro delarik, jarraian adierazitako zehaztasunekin eta banakatzearekin.

BEZagatik aplikatutako zerga-tipoa \_\_\_\_\_ (%)

Zerga-oinarria \_\_\_\_\_ euro

BEZ \_\_\_\_\_ euro

ESKAINZAREN ZENBATEKOA GUZTIRA \_\_\_\_\_ euro

Bilbon, 2013ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sin.: \_\_\_\_\_